

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektuak hainbat baliabide behar ditu aurrera ateratzeko. Hauek baliabide fisikoetan, intelektualetan, giza baliabideetan eta finantza-baliabideetan banatuak daude.

Baliabide fisikoak aztertzen baditugu, ezinbestekoa da supermerkatu bat ezarri nahi badugu lokal bat edukitzea, nahiz eta hasieran txikia izan. Produktuentzako apalak ere beharko ditugu eta baita ordaintzeko kutxazain bat ere. Hala nola, kutxazain automatikoak beharko ditugu bezeroek haien autokobranta egin dezaten. Kontuan hartu behar da, supermerkatu inteligente bat denez bezeroekin interakzioa dagoela eta horregatik haiek erosketak egin dezaten mugikor bat beharko dutela (Euskal Herrian jende askok duen gailua). Azkenik, saldu behar ditugun produktuak ere multzo honetan sartzen dira.



Baliabide intelektualak egitasmoa prestatzean izan beharko dira beharrezkoak, izan ere, kutxazain automatikoak programatzeko teknologiarik buruz asko dakien pertsona bat behar dugu eta baita QR kodeak ezartzeko ere. Bestela, ideia hau sortzeko 3 taldekideen sormena ere behar izan dugu, enpresa arrakastatsu bat sortzeko behar izan duguna.

Giza baliabideak gure saltzeko ahalmenarekin lotu ditugu, hau da, publizitatea egiteko eta gizarteari egitasmoa zabaltzeko dugun ahalmenarekin. Horretarako sare sozialetan iragarkiak jartzea da onena, mugikorra egunerokotasunean erabiltzen duen jendearekin hobeto konektatzeko eta erakartzeko.

Bukatzeko, erabiliko ditugun finantza-baliabideak guk dauzkagun aurrezkiak eta kapital pribatua izango dira, lagun bat gure enpresa finantziatzera eskaini baita.